



**2024KO EKAINAREN 17KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita lauko ekainaren 17an, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2024ko ekainaren 3an egindako ohiko bilkurako akta, eta idatzita dagoen moduan onartu da.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2024ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 47 zenbakidun zerrenda, EHUN ETA LAUROGEITA HAMASEI MILA BOSTEHUN ETA HOGEITA SEI euro ETA HAMAIIKA zentimokoa (196.526,11 €), bere espedientean dagoena, onartzea erabaki da.

III.- GIPIZKOAKO EROSKETA ZENTRALAREN BITARTEZ, GAS NATURALAREN HORNIDURA KONTRATUAREN 1. LUZAPENA (2022).-

Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko ekainaren 28an hartutako akordio bidez, Udal honek "Foru Kontratazio Zentralaren bitartez gas naturalaren hornidura kontratatzeko esparru akordiotik" eratorritako kontratua (X22006) EDP CLIENTES, S.A. enpresari (IFZ.: A74472911) esleitzea erabaki zuen, esparru akordioa burutzea erabaki zen baldintzetan.

Aipatu kontratua bi urterako izenpetu zen, gehienez urtebeteko 2 luzapen egiteko aukerarekin.

Aurreikusitako mugaeguna iristear dela kontuan izanda, Gobernantza Departamentuak, 2024ko maiatzaren 16ko foru agindu bidez, urte beteko lehenengo luzapena baimentzea erabaki du.



Honen aurrean, eta espedientean dauden txostenak ikusita, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako hau erabaki du:

Lazkaoko Udalaren eta EDP CLIENTES, S.A. enpresaren artean gas naturalaren hornidurarako izenpetutako kontratuaren urte beteko luzapena onartzea.

IV.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 49 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan baja ematea 2024ko maiatzaren 28an heriotzagatik.
- 22-11-09 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzua handitzea astean 6 ordutik 20 ordura maiatzaren 27tik aurrera, bere osasun egoera aldatu delako. Ekarpen ekonomikoa ere aldatu egingo da eta % 100 ordaintzetik % 74 ordaintzera pasako da.
- 24-11-05 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzua murriztea onuradunak eskatuta, astean 10 ordutik 2 ordura, maiatzaren 17tik aurrera. Onuradunaren ekarpena % 100ekoa izango da.
- 24-11-07 zenbakidun esped.: etxeko laguntzan alta ematea maiatzaren 20tik aurrera, astean 10 orduz, laguntza pertsonalerako. Onuradunaren ekarpena % 74koa izango da.
- 24-11-08 zenbakidun esped.: etxeko laguntzan alta ematea maiatzaren 27tik aurrera, egunean 4 orduz, astelehenetik ostiralera. Onuradunaren ekarpena % 24koa izango da.
- 24-11-09 zenbakidun esped.: etxeko laguntzan alta ematea maiatzaren 22tik aurrera, astean 2 orduz, etxeko garbiketan laguntzeko. Onuradunaren ekarpena % 100ekoa izango da.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 24-01-001 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako uztailean 50 €-ko dirulaguntza ematea eta alokairu gastuetarako uztailean 125 €-ko dirulaguntza ematea.. Eman daitekeenaren % 100 da.
- 24-01-009 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 73 €-ko dirulaguntza ematea maiatzetik abendura. Eman daitekeenaren % 73 da.





- 24-01-010 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 96 €-ko dirulaguntza ematea maiatzetik abendura. Eman daitekeenaren % 64 da.

Udal zerga eta tasak ordaintzen laguntzeko dirulaguntza.-

Udal zerga eta tasak ordaintzeko laguntzak emateko aurkeztutako eskaerak aztertu ondoren, bere espedientean dauden 41 zergadunen eta bakoitzari dagokion zenbatekoaren arabera, guztira 13.996,69 €-ko dirulaguntza ematea.

Gazte laguntzaileentzat bekak.-

Eneko Barandiaran Irastortzari 2024ko abuztuaren 16an hasi eta bi astez, Zanzibar uharteko Jambiani Beach herrian (Tanzania), batik bat 6 urte bitarteko haurrak zaintzeko eta uhartean sortzen diren beharrei erantzuteko auzo lanetan aritzeko 2.000 € dirulaguntza ematea. Zenbateko honen %50 orain ordainduko zaio eta beste %50 bidaiaria egin ondoren.

Ludoteka eta kirol ikastaro zerbitzurako dirulaguntza.-

Haur hezkuntzako 3 urtetatik lehen hezkuntzako seigarren maila artean dauden 12 haurri, bere espedientean zerrendatzen direnak, ludoteka zerbitzura joateko ordaindu beharreko kuotaren pareko dirulaguntza ematea, guztira 1.059,60 €.

Udako kirol kanpainako ikastaroen barruan haur bati kirolanitzia jarduerara joateko kuotaren pareko dirulaguntza ematea, guztira 102,70 €.

Dirulaguntza guztira 1.162,30 €-koa izango da.

Kultura eta denbora libreko ikastaroengatik ordaindu beharreko tasak ordaintzeko laguntzak ematea.-

- 24-23-02 zenbakidun esped.: semearen igeriketa ikastaroa ordaintzeko 50,90 €-ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 100 da.

V.- EUSKARA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Euskara batzordeak egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrek, aho batez, honako erabaki hau hartu du:

Euskara ikasten ari direnei.-

2023/2024 ikasturtean euskara ikasten bukatu duten ikasleei dirulaguntzaren ordainketa egitea baldintzak bete dituztelako. Ikasle bakarra izan da eta emango zaion kopurua 525 €-koa da.

Ordainketa partida honetatik egingo da: aurrekontuaren 1 480.01.335.00 partidatik.



VI.- KULTURA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Kultura Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Lazkaomendiko Jai Batzordeari.-

2024ko apirilaren 8ko Gobernu Batzordean, Lazkaomendiko Jai Batzordeari, Lazkaomendiko festak antolatzeagatik 4.900 €-ko dirulaguntza ematea onartu zen eta momentu horretan 3.000 €-ko lehen zati bat ordaintzea erabaki zen.

Behin gastuak aurkeztu dituztenean, ikusi da gastuen kopuru osoa 4.995,80 €-koa izan dela. Beraz Gobernu Batzorde honek hau ikusita, 95,80 €-ko dirulaguntza gehigarria ematea onartu du, eta momentu honetan 1.995,80 € ordaintzea.

Ordainketa aurrekontuaren 1 480.02.338.00 partidatik egingo da.

VII.- EKONOMIA SUSTAPENA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Ekonomia Sustapeneko Batzordetik, merkataritza, zerbitzu eta ostalaritza jardueri dirulaguntzak emateko egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako erabaki hauek hartu ditu:

- Merkatariei erosketa bonoengatik.-

Lazkaoko merkataritzaren sustapenerako Lazkaoko Udalak 2024ko maiatzean martxan jarritako erosketa bonoen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat merkatarik beraien saltokitan jasotako bonoak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien merkatariei hirugarren ordainketa egitea:

MERKATARIA	GUZTIRA	DIRU LAGUNTZA
AGURTZANE DE MIGUEL.. (KOKKOR)	55 €	14 €
ARANTXA FERNANDEZ (GAZI GOZO)	600 €	150 €
EIDER LUNA (STYLO ILEAPAINDEGIA)	380 €	95 €
AMAIA SORAZU (EKILORE)	95 €	24 €
AMAIA SORAZU (EKILORE)	30 €	8 €
AMAIA SUKIA MAIZ (AMETS BAT)	715 €	179 €
JAVIER GUTIERREZ HERNANDEZ (UNARO)	245 €	61 €
JAVIER GUTIERREZ HERNANDEZ (UNARO)	235 €	59 €
JAUREGI ELEKTRIZITATEA	1.690 €	423 €
XABIER BARANDIARAN (OSATU)	380 €	95 €
XABIER BARANDIARAN (OSATU)	85 €	21 €
AINHOA OLARAN (FISIO ZENTRUA)	560 €	140 €





ARTANO ETA LORENA SL	2.455 €	614 €
PRECOCINADOS MAITTE SL	220 €	55 €
JULEN IRURZUN IRAOLA (OREKA)	115 €	29 €
LEIRE VELASCO SEISDEDOS (LEIRE ESKULA)	240 €	60 €
ANGEL CIEREZ (ZERIK ILEAPAINDEGIA)	60 €	15 €
GERRIKO SL	175 €	44 €
URTEAGA PENTXUAK SL	485 €	121 €
MIREIA ESTEVEZ RODRIGUEZ (KOBLOI)	1.465 €	366 €
MIREIA ESTEVEZ RODRIGUEZ (KOBLOI)	5 €	1 €
AINHOA GURRUTXAGA (ILEAP.)	1.185 €	296 €
NAGORE COLORADO... (MANAKO)	865 €	216 €
JOANA PLASENCIA ZUNZUNEGI (XANU)	1.995 €	499 €
GARAZI ZUFIRIA (ARRIARAN MERTZ.)	580 €	145 €
ALAITZ ZUBIZARRETA OTAEGI (MAGALA)	130 €	33 €
PELLO BIDEGAIN (HARATEGIA)	285 €	71 €
ARANTXA FERNANDEZ (GAZI GOZO)	430 €	108 €
JOSE ANTONIO INSAUSTI (ESTANKOA)	2.255 €	564 €
NEKANE GARMENDIA...CB (GARAIZ)	3.265 €	816 €
IDOIA MATXINANDIARENA (A.BELEN)	1.185 €	296 €
M ^a CARMEN AGUADO (AGUADO ESTANKOA)	910 €	228 €
IDOIA GODOY ATXAGA (FARMAZIA)	515 €	129 €
PEDRO PEREIRO FARMAZIA	1.130 €	283 €
JON SANTOS MARTIN	125 €	31 €
MIKEL LUZURIAGA (MIKEL OPTIKA)	3.345 €	836 €
ANA CRISTINA OLANO (ESTETIKA ZEN)	1.210 €	303 €
RICARDO IZQUIERDO SANTAMARIA	260 €	65 €
RAQUEL GARCIA MENDOZA (PRANAQI)	110 €	28 €
DAMASO LOPEZ (PELU. DAMA)	95 €	24 €
MILA MTNEZ. (DIGITAL IZAR)	40 €	10 €
AMAIA CARRO Y OTROS CB (HIRUTXOKO)	20 €	5 €
JOSE ANGEL MATIAS FUENTES (FRUT.)	3.045 €	761 €
MIGUEL MARI ARAKAMA (HARATEGIA)	1.170 €	293 €
GUZTIRA	34.440 €	8.610 €

Ordainketa udal aurrekontuaren 1 471.02.433.01 partidatik egingo da.

-Merkatariei 2023ko irekiera eta obregatik.-

Lazkaoko merkataritza eta ostalaritza jardueraren sustapenerako Lazkaoko Udalak 2023rako onartutako dirulaguntzak direla eta (jardueren irekiera eta modernizazioa) jasotako honako eskaeraren ondorengo dirulaguntzaren ordainketa egitea:



MERKATARIA	GUZTIRA
-------------------	----------------

Yolanda Godoy Tamayo (ileapaindegia)	1.841,04 €
GUZTIRA	1.841,04 €


Ordainketa 2024ko udal aurrekontuaren 1 471.03.433.01 partidatik egingo da.

VIII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ez da galderarik egon.

IX.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bostak eta erdiak direnean eta nik, Idazkarlak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.



LAZKAOKO
UDALA

